

Kattalin Zurutuza Eskisabel

D Maila | Bertsoa | aipamen saria

Kattalin Zurutuza naiz, eta Beasaingo Andramendi Ikastolako DBH mailako ikaslea naiz. Dantza, animaliak eta landareak gustatzen zaizkit, baita nire familiarekin egotea ere. Lehiaketa honetan parte hartzeak ilusio handia egiten dit, eta espero dut aurrerago ere parte hartu ahal izatea. Nire idazlanak gustatzea espero dut, zuen ametsak euskaraz izatea espero dudan moduan



Irulegiko eskua

Doinua: “Konplize ditut eta”

Irulegin esku bat

topatu omen da

baskoien idazkiak

omen ditu bada

Euskara frogatzeko

froga hemen da ba!

Pozez betea dago

Euskal begirada.

Aurretikan Veleian

laurehun ostraka
ateratzean mundu
guztia bibaka,
adituak seituan
hasita dudaka
Arkeologoentzat
kristoren ataka.

Buztinez zikinduta
omen zen atera
deszifratzea lortu
zen urtebetera
esanahia jakinda
goazen gu batera
gure altxor eder hau
ederki zaintzera .

Argiago daukagu
gu nondik gatozen,
Nafarroko eskua
gugana heldu zen,
jarrai dezagun orain
mezua zabaltzen,
“sorioneku” biziz

aurrera goazen!